

Hedoi Etxarte Moreno

Azurmendi Merced karrikan

Joxe Azurmendi hil zen egunean jabetu nintzen zenbateraino zen, gure haurtzaro eta gaztaroko etxean, pertsonaia ia mitiko bat. Euskal kons-
telazio zabalago baten parte zen Azurmendi. Bizirik zirenak hildakoe-
kin nahasten ziren: Joan Mari Torrealdei, Toribio Etxebarria, Arantxa
Urretabizkaia, Laura Mintegi, Ibon Sarasola, Federico Krutwig, Oteiza.

Bitxia da efemerideek nola egiten duten bat, Azurmendi hil baino hi-
labete lehenago, eta urte berean, beraz, hil zelako Pierre Nora histo-
rialari frantsesa. Hark parte hartu zuen Annales eskolako bost libu-
ruki zeuden JAKIN irakurtzen zen Merced karrikako egongela hartan.
Histoire de la vie privée-ren gaztelerazko liburuak ziren. Nerabezarotik
aurrera txunditu ninduten egongelako tapa gogorreko liburukote lo-
dien parte ziren. Bosgarren liburukian, bereziki deigarriak egiten zi-
tzaizkidan lau kapitulu zeuden, zeharka baina sarritan begiratu nitue-
nak: ‘Katolikoak: bekatuaren imajinarioa’, ‘Komunista izatea? Izateko
modu bat’, ‘Judu izatea Frantzian’, ‘Migratzailea izatea Frantzian’.

Gure umezurztasun intelektualaren parte da Euskal Herria ikertuko
duten halako anbizioko lanak ez izatea ala, sikiera, itzulita irakurri
ahal izatea.

Ikerketa horretan, ziur naiz jakingo genukeela nork irakurtzen zuen
JAKIN eta Azurmendi. Horregatik egin zitzaidan hain gertukoa eta xa-
murra, Azurmendi hil berritan, Jule Goikoetxeak *Naiz*-en argitaratu
zuen ‘Espainolak euskara ikasi zuenean’ artikulua. Ez zen hori gure
etxean gertatu zena, baina izan zitekeen. Gogoan dut sarritan ikusi
nuela gure aita *Espainolak eta euskaldunak* (Elkar, 1992) irakurtzen,
eta, halako batean, nire burua datorkit Gasteizko Andagoia plazako
ikasle pisuan *Volkgeist - Herri gogoa* (Elkar, 2007) irakurtzen eta nire
baitan pentsatzen: bada, pentsatzen da, arnasa luzez, euskaraz. Arra-
zoi oso ezberdinengatik *Barkamena, kondena, tortura* (Elkar, 2012) eta

Azurmendiren nire liburu kuttunen *Gizabere kooperatiboaz* (Jakín, 2016) datozkit gogora, eta, ordea, gaur egundik ikusita, gure aita zenak irakurri eta piztu zuen azkena da, udazkena iristearekin batera, irakurriko dudana: *Historia, arraza, nazioa. Renan eta nazionalismoaren inguruko topiko batzuk* (Elkar, 2014). Ezagutzen dudan esperientzia ederrenetako bat da maite duzun norbaitek pasioz irakurri zuena irakurtzea eta testua deszifratu bitartean pentsatzea: zer egingo zitzaien aurreko irakurleari kitzikagarri? Zerekin ez zen konforme egongo?

Eta, ordea, pentsalari nabarmenekin, Azurmendik berak Orixerekin egin zuena egin behar dugu (*Zer dugu Orixeren kontra, Zer dugu Orixeren alde*, Jakín, 1976-1977). Zentzu horretan, filosofoa zendu aurretik, *Arteka* aldizkariaren 2025eko maiatzeko 61. zenbakian, Paul Beitia Gabriel Arestiz ari zela marxismoarekin (eta, beraz, klasearekin, eta, funtsean, klase borrokarekin eta kapitalismoarekin), Azurmendik zituen mugez eta ezinez ikertzea legokiguke: Azurmendirekin egitea Azurmendik munduarekin, eztabaidarekin egiten zuena.

Eta, ordea, testua ixtera noa, eta, Wikipediako Azurmendiren lanen zerrenda begiratuta, jabetu naiz ez dudala aipatu *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan* (Susa, 1989) lan aparta, eta itzelezko jakin-mina sortu didatela bazirenik ere ez nekien *Kultura proletarioaz* (Jakín, 1973) eta *Iraultza sobietarra eta literatura* (Mensajero, 1975).